

Antxiñako fotografia

Oñatiarren txirrindulari-zaletasuna



Aste honetan eztozu Oñatin karrera faltarik izango. **Euskal Herriko Itzulixa** beste behin helduko xaku gure herrira. Aurten, gainera, etapa baten akaberia egun batian eta hurrenguan erlojupeko izugarria ikusteko aukeria eukiko dogu. Laugarren aldixa da Oñatin azkenengo eguneko erlojupeko hori jokatuko dana.

Euskal Herriko Itzulixak, gerra aurtxuan jaixo arren, gerra ostian, orduko egoera politikuagatik, ezin izan eben izen horrekin jarraitu. Ordezko moduan 1952xan, **Bicicleta Eibarresa** izendapenarekin, Hego Euskal Herri osua ziharkaketan eben lau bat eguneko karrera garrantzitsua asmau zan. Ondo goguan dakot Kale Zaharrian behera lasterketiaren aurretik etozen **Lambretta** motor *scooter* eibartarrak eta metro batzuk atzerago etorren **F. M. Bahamontes** –orduan etzan hain famaua- hasarre, puñeta batian, Oñatiko kaletako koskaz betetako ibilbidian. Hareitez benetako **harbidiak**, Paris-Roubaix karrerako **pavé** bildurgarrixen parekuak, kaliak urte batzuk gerotxuago asfaltau ziran-eta.

Gaurko fotografia hurrengo hamarkadakua da. Orduan hemendik edota inguruetatik pasaiten ziran karrerarik inportantienak: esate baterako, aittatu dogun **Eibarko Bizikletia** eta **Españako Itzulixa** be bai. Eta Oñatin bertan ikusterik ezpaeguen, jentia herritik kanpora sarritan faten zan, urrin samar batzuetan. Horixe da argazki honetan ikusi geinkiena Naparruako **Urbasa gainian**: eskumatik hasitta lehenengo bixak **Pako Illarramendi** eta **Jenaro Igartua** txantxikuarrak dittugu. Pako Kale Zaharreko Illarramendiñeko okindegiko semia zan eta gerora bere izeneko tabernia zabaldu eben kale berian; eta Jenaro, barriz, Olabarrietako Taberna Zaharrekoa zan, gaur egun Igartua-Enea izena dakon etxekua; bata zein bestia oso popularrak ziran Oñatin. Fotografia beste herrioseme batek atara eben: **Joxe Luis Plazaola** argazkilari ezagunak. Hamaika karreratako testigantza grafikuak itzi oskun Joxe Luisek.

Argazkixa, ba, 1960ko hamarkadakua da, 1965. urtekua seguru asko. Bakarrian datorren txirrindularia **Sebastian Elortza** azkoi-tarra, Bitorrixako **KAS** taldekua, dala emuten dau. Urte haretan irabazi eben, hain zuzen be, Elortzak Eibarko Bizikletia. Dana dala, Españako Itzulixak be sarritan igoten eben Urbasara, 1968xan, adibidez; nahiz eta orduan, petardo bat jarri euelako, etapia suspendidu biharra izan. **KAS** taldiak oso karrerista onak eukan garai haretan **Dalmazio Langarikaren** ardurapeian: euskaldunen artian, **Antonio Barrutia**, **Balendin Uriona**, **Uribezubia** anaiak, **Jose Antonio Momeñe**, **Patxi Gabikagojeaskoa**, **Eusebio Velez de Mendizabal**, **Karlos Etxeberria** eta, jakina, **Sebastian Elortza**, bestiak beste. Gerotxuago etorri ziran **Txomin Perurena**, **Lasa** anaiak eta beste hainbat.

J. E.

Gorago esan dan lez, argazkixa Joxe Luis Plazaolak ataratakua da eta guri bere semiak, Robertok, eskuratu dosku. Argibidiak, barriz, Robertok berak ez ezik, Joxe Mari Jauregialtzo *Paikok* eta Klaudio Galdos Erlek be samurtu doskue. Milla esker danori!